



Lehiaren  
Euskal Agintaritzaren  
Autoridad Vasca  
de la Competencia



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA  
ETA ETXEBIZITZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

## PRENTSA-OHARRA

### **LEA eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila elkarlanean arituko dira obra handien hondakinen kudeaketako txostenen egiaztatzei buruzko araudia hobetzarren**

**Ingurunearen babesak obren hondakinak legeriaren arabera kudeatzea eskatzen du, baina betebeharrak hori betetzearen egiaztapena egin behar da beharrezkoak ez diren izapideak eta justifikaziorik ez duten kostuak sortu gabe obra egiten dutenei.**

Bilbo, 2017ko apirilaren 7a

Eusko Jaurlaritzan Ingurumen-kontrolako Erakunde (IKE) gisa erregistratu zen operatzaile batek erreklamazio bat aurkeztu zion Lehiaren Euskal Agintaritzari (LEA). Horren esanetan, merkatuan sartzea debekatu zaio, arau bat aldatu eta gero. Kontsulta jasota, LEAk [txosten bat](#) egin du obra handien hondakinen kudeaketako txostenen egiaztatzei buruz. Txosten horrek Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailarekin bilera bat egitea ahalbidetu du.

Araudiak hondakinak sortzen dituzten obren sustatzaileei euren kudeaketari buruzko betebeharrak batzuk ezartzen dizkie: hondakinak kudeatzeko plan bat egitea, plan hori gauzatzea eta obraren zuzendari teknikoak kudeaketari buruzko txostena egitea. Betebeharrak horiek betetzea derrigorrezkoa da obren sustatzaileei eskatutako fidantzak itzultzeko, hala denean. Halaber, obraren zuzendari teknikoaren txostena administrazioak egiaztatzea behar du, zuzenean edo zeharka (kontrola egiten duen erakunde baten bidez).

Eusko Jaurlaritzak, dokumentuen egiaztapena egiteko, IKE izeneko erakunde batzuk sortzea erabaki zuen. IKE gisa erregistratzeko betebeharrak batzuk eskatu ziren, kontratatutako langileei eta esperientziako urteei buruzkoak, bereziki. 2013ko irailean, Eusko Jaurlaritzak, eskatutako betebeharren balizko proportziorik ezaren aurrean, bertan behera utzi zuen, **aldi baterako**, txostenak IKEek egin behar zituztela eskatzen zuen dekretua. Halaber, egiaztapenak egiteko **ahalmena** Lanbide-elkargoei eman zien. Gauzak horrela, egitatean



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA  
ETA ETXEBIZITZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

bidez sortu da araubide bat, non Lanbide-elkargoei eman zaien obraren zuzendari teknikoen txostenen egiaztapenak egiteko ahalmena, modu **esklusiboan**.

Ingumen Sailak azterketa bat egingo du hondakinen kudeaketako txostenen egiaztatzeak nola egin behar diren zehazteko, betiere ingurumena babestearren sustatzaileei beharrezkoak ez diren kargak eta gastuak sortu gabe (bezeroei jasanaraziko dizkienak). Halaber, elkarlanean LEAekin, aztertu egingo du nolako eragina duten merkatuan proposatutako neurriek.

Berehala indarrean sartuko dira neurri egoki batzuk Sailaren webguneko gidak eta informazioak zuzentzeko. Hori eginda, kontsumitzaileek eta operatzaileek argi edukiko dute zein diren indarrean dauden arauak eta saihestu egingo da merkatua itxita geratu ahal izatea, herritarrenganako zerbitzu hobea lortzearen.

Lehiaren Euskal Agintaritza izaera administratiboko erakunde autonomoa da, eta erakunde eta funtzio-autonomia du bere eginkizunak betetzeko. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoei dagokienez.

Txosten:

[http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/eu\\_informes/adjuntos/113\\_informe\\_GESTION\\_DE\\_RESIDUOS\\_web\\_eu.pdf](http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/eu_informes/adjuntos/113_informe_GESTION_DE_RESIDUOS_web_eu.pdf)